

txintxarri



Bost herritar Gipuzkoako saskibaloia selekzioan

Zilarrezko domina lortu dute Navarro ahizpek eta Lasarte-Oriako hiru entrenatzaileek Hego Euskal Herriko txapelketan / 10

EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

Euskal giroa nagusi

Euskal Jaia eta VI. Baserri azoka izango dira bihar, larunbatean, Lasarte-Orian / 3

Kultura ekimenak eta zozketa indartsu bat aurkeztu ditu Aterpea merkatarien elkarteak / 4

170 bat herritarrek Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroak beteko dituzte igandean / 11



gama altuko 2 mó progresibo erreflexuen aurkako lenteekin

229€

www.multioplicasgipuzkoa.com   

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



2019. urteko udal aurrekontuetarako parte hartze prozesua aurkeztu dute udal ordezkariak. TXINTXARRI

Aurrekontuetan parte hartzeko epea ireki dute

500.000 euroko diru sorta gorde du Lasarte-Oriako Udalak herritarren proposamenak aurrera eramateko. Horiek aurkezteko epea zabaldu du dagoeneko, eta pertsona edo elkarteek proiektuak aurkeztu ditzakete erregistroan edo posta elektronikoz bidez

Txintxarri

Hirugarren urtez lasarteoriatarrek aurrekontuetan parte hartzeko aukera zabaldu du udalak. Aurreko bi urtetan jasotako kexa eta izandako hutsuneak "hobetuta" osatu dute aurtengorako proiektua. Esleipen prozesua "zehaztea" izan dute helburu 2019rako, eta agiri bat osatu dute horretarako. Proiektuaren balioespenarako irizpide teknikoak argituko ditu txostenak.

Asteazkenean abiarazi zuten prozesuaren lehenengo fasea. Azaroaren 21era bitarte proposamenak aurkezteko epea izango da. Horrela, herritar edo elkarteek beren aurrekontuak aurkeztu ahal izango dituzte. Bi bide izango dituzte horretarako; udal erregistroaren bidez, edo partehartzea@lasarte-oria.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita. Zenbait baldintza bete beharko dituzte interesatuen proposamenek. Lasarte-Oriari edota bertako biztanleei

zuzenduta egon beharko dute. Aurrekontuak udalak egikaritzeko eskumena izan behar du, eta 2019. urtean gauzatuko da (ez da hurrengo urteei lotuta izango). Horrekin batera, "zehatza, xehea eta ekonomikoki ebaluagarria" izan beharko du, eta gehienez 500.000 eurokoa izango da. Ingurumen inpaktu positiboa edo inpakturik gabeta izatea ere puntuagarri izango da, eta genero, arraza, adin eta bestelako bazterketarik gabeta izan beharko dira.

Aurkeztutako aurrekontuarekin batera, izenburua, proposamena egiten duenaren izena eta kontaktua, deskribapena, pertsona onuradunak eta gutxi gorabeherako aurrekontua txertatu beharko dira.

Bigarren fasea

Lehen fasea amaitu eta hurrengo egunean jarriko da martxan bigarrena; azaroaren 22an hasi eta abenduaren 13an amaituko da hori. Aurkeztutako

proposamenen balorazio teknikoak egingo dute. Udaleko teknikoekin batera, alderdi politiko guztietako ordezkariak puntuatuko dituzte aurkeztutako proposamenak. Gehienez 50 puntuko balorazioa jaso ahal izango du aurrekontu bakoitzak, eta hirugarren fasera pasatzeko ezinbestekoa izango da gutxienez 25 puntu lortzea. Baldintzak betetzen dituzten aurrekontuek 500.000 eurotik beherako kostua badute, guztiak eramango dituzte aurrera, eta bigarren fasea bertan behera geratuko litzateke. Puntuazioaren xehetasunak udalak web orrialdean jarri ditu ikusgai.

Onartutako proposamenak parte hartze orrien bitartez bozkatu ahal izango dituzte lasarteoriatarrek. Behin kontsulta epea amaituta, 50 puntu esleituako zaizkio herritarren babes handiena jaso duen proiektuari. Gainerakoei, berriz, botoen ehunekoaren arabera emango zaizkie puntuak, proportzionalki.

Europak berretsi du Diez bidegabe epaitu zutela

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi du 'Bateragune auzikoe' ez zutela epaiketa justua izan

Txintxarri

Estrasburgoko auzitegiak ebatzi du *Bateragune auzian* epaileak ez zuela inpartzialki jokatu. Bost auzipetu izan ditu kasuak, tartean Rafa Diez lasarteoriatarra. Zigorruak Europako Giza Eskubideen Auzitegiara jo zuten Espainiako justiziak inpartzialtasun eta errugabetasun printzipioak urratu zituela salatuz, eta hori berretsi du orain Estrasburgok. Sei urte eta erdiko kartzela zigorra bete behar izan du Rafa Diezek.



Rafa Diez Usabiaga. TXINTXARRI

Memoria eguna ospatuko dute bihar, Askatasunaren parkean

Gatazkak eragindako biktime guztiak oroitzeko dituzte udal ordezkariak Askatasunaren parkeko ekitaldian

Txintxarri

Larunbat eguerdian bilduko dira Lasarte-Oriako Udaleko ordezkariak Askatasunaren parkean. Udalak prestatutako adierazpena irakurriko dute, urtero moduan. Iragan urtean argitaratu zuten *Memoria partekatuta baterantz* txostena eta bertan bildutakoak ere ekarriko dituzte gogora agerraldian. Udalak bi konpromiso ditu memoriarako bidean: topaketarako eta eztabaidarako espazioak ugaritzea eta, kontaketa bat eraikitzea, biktime guztiak errespetatuko dituen.



Askatasunaren parkea. TXINTXARRI

Asfaltia enpresak egingo ditu herriko asfaltatze lanak

Adjudikatu dituzte herriko errepideak berritzeko lanak: Asfaltia enpresak egingo ditu, 1.460.520 euroko aurrekontuarekin. 103 eguneko epea dute lanak egiteko.

Lasarteoriatarrek eragozpenik ez jasateko, hainbat baldintza ezarri ditu udalak: posible den guztietan errai bat libre utzi behar dute eta zirkulazio handia

duten bide publikoetako edo auzo batzuetako bide zentraletako lanak gauzez egin beharko dituzte.

Asfaltatuko diren bideak hauek dira: Zelaialde, Iturrigoxo, Txartel, Arranbide, Antxota, Buruntza, Goikale, Asteasuain, Antxisu, San Frantzisko eta Blas de Lezo kaleak; Donostia, Atsobakar eta Oria etorbideak; Zirkuitu ibilbidea; Goiegi urbanizazioa; eta Landaberri ikastolako Zubietako eraikineko aldapa eta sarbidea.



Behemendi elkarteko Ainhoa Amundarainek aurkeztu du seigarren baserriko azoka. TXINTXARRI

Baserritarrez jantzita, zero kilometroko azokara

Euskal Jaian murgilduko dira lasarteoriarrak larunbatean. Ekintza ugariz beteriko egitaraua prestatu dute festari gauera arte eusteko. Horrekin batera, baserriko produktuen azoka ere izango da Okendo plazan, 10:00etatik 14:00etara

Txintxarri

Euskal giroa nagusi izango da larunbatean Lasarte-Orian. Ttakun Kultur Elkartearen eskutik Euskal Jaiaz gozatzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek egun osoz. Egitarau zabala osatu dute aurtengo festarako. Goiz goizeko Dianarekin hasi, eta eguneko ekintzez gain, gauera arte luzatu ahal izango dute parranda herritarrek. Euskal produktuak erosteko aukerarik ere ez da faltako. Baserriko produktuen seigarren azoka antolatu du Behemendik egun bererako. Urtero moduan, Okendo plazan jarriko dituzte postuak baserritarrek, eta goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak.

Hamar saltokitan erosi ahal izango dute bezeroek, eta erosketetarako eskaintza zabala izango dute. Jatorrizko izendapeneko Idiazabal gazta, behi esnekiak, ahuntz gazta, ahate haragia, eta Tolosako babarrunak salduko dituzte.

Horiekin batera, euskal txerriaren hestebeteak, pirinioetako arrazako eta terreñako behikiak ere erosi ahal izango dituzte.

Gozoak ere izango dira azokan. Eskuz egindako pastez eta ogiez gain, marmelada eta konfiturak ere salduko dituzte, baita Aizarnazabalgo eztiak ere. Baserriko jogur ekoizleek ere postua jarriko dute plazan.

Herriko bi postu

Lasarte-Orian ekoiztutako barazkiak ere salduko dituzte. Urtero gisa, Telleri baserriko ekoizleak Okendo plazan izango dira barazkiak, intxaurrak, eta denboraldiko beste hainbat jaki saltzen. Hazi ekologikoen

HAMAR POSTUTAN EROSI AHAL IZANGO DIRA AURTEN BASERRIKO PRODUKTUAK

postua izango da herriko beste postua.

Horretaz gain krema eta ukenduak ere salduko dituzte, baita elikaduran erabiltzeko loreak, landareak eta sustraiak ere.

Haurrentzako egurrezko jolasak ere izango dira plazan, arkupetan.

Salmenta onak Lasarte-Orian

Azken urteetan herritarren kontsumo ohiturak aldatu egin dira, eta horrek baserriko produktuen kontsumoan beherakada ekarri du. Horregatik, baserriko produktuak merkaturatzeko aukera "ezinhobea" da azoka. Horrela azaldu du Behemendi elkarteko Ainhoa Amundarainek.

Gainera, zero kilometroaren irizpideari eusten dio. Ez da inolako bitartekaritzarik gertatzen; produktuak sortzen dituzten ekoizleen eskutik jasotzen dituzte bezeroek produktuak.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA

Denak ez du balio

Pasa den igandean Nafarroako herri seinalatuan izan ziren eskuin laranja, urdina eta berdea, azken bi urteetan Espainiako estatuko hedabide nagusiek hamaika modutara haizatu duten herrian. Askatasuna aldarrikatzera joan omen ziren bertara, euren iritzien zilegizko defentsa egitera. Askatasun individuala eta kolektiboaren arteko muga, ordea, lausoa da kasu honetan.

Onartuko al genuke halako ekitaldi bat gure herrian antolatu izan balute? Gai izango al ginatke, normaltasun osoz, etekin elektoralen truke joko mediatikoa pozoitu beste helbururik ez dutenen zirkuari men egiteko?

Igandeko ekitaldiak ere islatu zuen eskuineko kideak, egoerak hala eskatuz gero, prest daudela indarrak batu eta egoera jakinetan erantzun bateratua emateko. Eskuinak, baina, hainbat aurpegi ditu, baita bandera ere. Ekitaldiaren aurreko orduetan eztabaidagai nagusien artean izan zen bertan bildutako jarraitzaileek Konstituzio aurreko sinbolorik aieratutako ote zuten. Bandera frankistarik ez zen bistan izan, baina aspalditik ezaguna da zein den alderdion jatorria eta sakoneko pentsaera.

Iritzi oro ez da onargarria eta oinarritzko eskubide zein askatasunen aurka egiten duten ideiek gaitzespen irmoa merezi dute. Horregatik, funtsezkoa da egun, mundu zabalean mezu eta lider faxistak indartzen ari diren garaian, hitzei benetako esanahia ematea. Terminologia irauliz biztanleria konbentzitu nahi dutenen gezurrak ez onartzea. Denak ez du balio.

Kontratazio berriak, Buruntzaldeko udaletan

Beterri-Buruntzako Udalek 22 kontratazio berri egingo dituzte 2018. urtea amaitu aurretik.

Tokiko enplegu ekintzak programaren barruan, udalek hainbat proiektu kudeatuko dituzte eskualdeko langabetuen lan egoera hobetzeko asmoz. Programa Lanbideak diruz lagunduta dago.

Aurrikusten diren kontratuen %40 emakumei zuzenduko dira, %30 DBE hartzaile edota

onuradunei, eta %15 55 urtetik gora dituztei.

Honakoak dira Lanbiden argitaratutako diren eskaintzak: 1. mailako ofizial margolari, 1. mailako ofizial igeltseroak, 2. mailako ofizial igeltseroak, lan anitzetarako peoiak, aparejadoreak, merkataritza marketin teknikaria, etxeko animalien inguruan kontzientziario kanpaina burutzeko dinamizatzailea, laneratze enpresak garatzeko teknikaria, kontratazio dirulaguntzen dinamizatzailea eta insertzio soziolaboraleko teknikaria.

NOAOA BIDAIAK

IRTEERA 2019ko ekaina
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Plazak girotuko dituzte, Aterpearen eskutik

Aterpea merkatarien elkarteak 'Kultura leku guztietan' kanpaina abiatu du, herriko plazak eta kaleak musikaz betetzeko. Azaroako eta abenduko ostiraletan kontzertuak antolatuko dituzte, "herria dinamizatzeko". Udalaren laguntza jaso dute horretarako

Txintxarri

Herriko plazak eta kaleak dinamizatzeko helburua du Aterpea merkatarien eta ostalarien elkarteak. Horretarako, *Leku guztietan kultura* kanpaina aurkeztu dute, udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Tratu On Bat markaren laguntzarekin. Lasarte-Oriako hainbat txoko girotzeko, kontzertuak antolatu dituzte azaroko eta abenduko ostiraletan. Lehen gaur bertan izango da: Joy Leboy artistak joko du Pablo Mutiozabalen. Kontzertu guztiak bezala, 19:00etan hasiko da ikuskizuna, 20:00ak arte.

Ramon Ormazabal Aterpeako bozeramaileak esan duenez, askotariko estiloak nahastuko dituzte kontzertu horietan. Azaroko hurrengo kontzertua hilaren 23an izango da. Victor Vega Jazz Triok joko du Jaizkibel plazan. Astebete geroago, ordea, Twin Room taldeak, Josu Jungitu eta Sonia Verak, swing estiloko abesti mitikoak interpretatuko dituzte.

Abenduan hiru kontzertu antolatuko dituzte. Batetik, Maider Legarreta eta Pablo Costas pop bikoteak joko du Kale Nagusian, Brigidatarren komentuari ondoan. Hilaren 20an DJ Chill House ikuskizuna egongo da Juan XXIII.aren plazan. Eta azkenik, Eider Elorza Donostiako abeslariak gospel eta gabon-kantak kantatuko ditu abenduaren 28an.

Jesus Zaballos alkateak Aterpearen bizitasuna goraiatu du. "Kideekin harremanetan jarri ginen, kultura dendetara eramateko. Konturatu ginen ezin genuela guk bakarrik egin, eta Aterpearen esku utzi genuen". Kultura saileko kredituak moldatu, eta elkartera bideratu zituzten. Zaballosek oroitarazi du urtean 25.000 euroko laguntza ematen diola udalak Aterpeari. "Eskualdean gehien jasotzen dutenak dira. Merezi dutelako".



Tajamar eskulturaren biribilgunean elkartu dira merkatariak . TXINTXARRI



Aterpeko kideak eta udal ordezkariak, kanpaina aurkezpenean. TXINTXARRI

1.000 euro hiru ordutan gastatzeko

Aterpeak 25 urte bete ditu aurten, baina ospakizunak ez dira guztiz bukatu. Azaroan beste kanpaina bat abiatu du herriko dendetan kontsumoa bultzatzeko: *Eskuratu mila euro, eta gastatu hiru ordutan*. Azaroaren 12tik 23ra Aterpeko kide diren establezimenduetan gastatuz gero, zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Azaroaren 23an, Jaizkibelgo plazan emango duten kontzertuarekin batera, 19:30ean, zozketa egingo dute.

Sari bakarra izango da zozketan. Irabazleak erosketa-bonuetan 1.000 euro jasoko ditu; 10 euroko ehun bonu, hain justu. Establezimendu bakoitzean gehienez hamar bonu gastatu ahal izango ditu, alegia, ehun euro. Azaroaren 29an, ostegunean, izango du horretarako astia, 17:00etatik 20:00etara.



Malagako Cuadro Flamenco taldeko kideek erritmoz bete zuten aretoa. TXINTXARRI

Flamenkoa, senidetze egun borobilaria amaiera emateko

Egun kulturala antolatu zuten Semblante Andaluzek eta FARAE Garcia Lorca elkarteak aurreko larunbatean

Txintxarri

Flamenko doinuek ireki dute azaroko kultur agenda. Lasarte-Oriako Gitanillas del Alba eta Zambra, eta Malagako Cuadro Flamenco aritu ziren kultur etxean azaroaren 3ko arratsaldean. Egun kulturala antolatu zuten Semblante Andaluzek eta FARAE Garcia Lorcak (Euskal Herriko andaluziar etxeen elkarte da). Dantza eta kantu ikuskizunaren aurretik, herriko elkartearen paella ospetsua jan zuten, Atsotak auzoan daukaten lokalean.

Herriko dantza taldeek ireki zuten egitaraua. Gitanillas del Albako dantzari gazteek gero eta trebeagoak direla erakutsi

zuten. Ondoren, Zambra aritu zen, hogeita bat minutuz, euren errepertorioko dantza onenak eskainiz. Arratsaldeko ekitaldi nagusirako motorrak berotu zituzten. Malagatik etorri zen Cuadro Flamenco taldea, eta ordubete inguruko ikuskizuna eskaini zuen, musika eta dantza uztartuz. Bete egin zen kultur etxe auditorioa.

Urriko arantzatxoa atera dute Semblante Andaluzeko kideek. Aste Kultureko azken egunean Los primos a compas de flamenkito taldea zen etortzekoa, baina eguraldi txarra tarteko, bertan behera utzi behar izan zuten emanaldia; flamenkoaz gozatu gabe geratu ziren orduan.



TXINTXARRI

Zendutakoak gogoratzeko eguna

Urteroko ohitura jarraitu dute lasarteoritarrek, eta Domu Santu egunean Illarraltzueta hilerria hurbildu dira zendutako pertsonak gogoratzera. Parkina kotxez eta motorrez beteta zegoen eguerdi partean; egun osoan zehar lasarteoritarrek euren ahaide eta lagun maitatuei lore-sorta koloretsuak uztera joan dira.



Kepa Junkera eta sorginak, eta Alain Musichini & Jazz Quartet izan ziren Manuel Lekuonan iazko edizioan. TXINTXARRI

Hauspoaren ahotsaz eta erritmoaz gozatzeko

XV. Akordeoi jaialdia antolatu du Zero Sette akordeoi orkestrak. Iñaki Dieguez eta Iker Telleria bikoteak eta Sabadellgo Akordeoi orkestrak sortutako azken lanak aurkeztuko dituzte bihar, larunbatean, Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzan

Txintxarri

Akordeoiak doinuek Manuel Lekuonako aretoa beteko dute. Hamabost urte dira Zero Sette akordeoi orkestrak lehenengoz akordeoi jaialdia antolatu zuena. Urte horietan guztietan akordeoi bakarleri, bikote, orkestra eta talde askoren trebetasunaz gozatu ahal izan da. Gainera, akordeoia eta bere ahaideak, hala nola, trikitixa edo bandoneoia, musika klasikoa, jazz, euskal doinuak eta musika garaikidea ere jotzeko erabili daitezkeela jakin dute Lasarte-Oriako herritarrek.

Bihar, larunbata, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Akordeoi Jaialdiko 15. edizioa izango da Manuel Lekuonan. Iñaki Dieguez eta Iker Telleria eta Sabadellgo akordeoi orkestra izango dira oholtzan. Sarrerak 5,50 euroko prezioan daude.

Iñaki Dieguez eta Iker Telleria ibilbide luzeko musikariak dira. Dieguez akordeoi jotzaileak askotariko estiloak landu ditu bere ibilbidean zehar. Bakarleri moduan hainbat kontzertu eskaini ditu nazioartean, beste talde edo bakarlariren diskoetan

parte hartu du, baita filme batzuen soinu-bandan ere. Cirque du Soleilen *Alegría* ikuskizunean ere musikari lanetan ibilia da.

Telleria perkusiolaria ere orkestra, bakarleri eta talde askorekin egin du lan. Hainbat ikuskizunetan elkarrekin lan egin ostean, bat egin eta haien ikuskizun propioa sortu dute. Horretan akordeoia eta marinbaren doinuak uztartu dituzte. Manuel Lekuonara hurbiltzen diren herritarrek musika herrikoi, klasiko eta garaikidearen melodiak entzungo dituzte. Haiekin batera, Oinkari dantza taldeko dantzariak izango dira oholtzan.

Bestetik, Sabadellgo Akordeoi orkestra ere izango da jaialdian. 1991. urtean sortu zuten. Akordeoia ezagutzera ematea du helburu. Horretarako, doinu klasikoak ditu oinarri, instrumentuaren sustraiak ahaztu gabe. Bere errepertorioan obra klasikoak, herrikoiak eta garaikideak daude, baina orkestrak *Parisetik Buenos Airesera* azken lana aurkeztuko du Lasarte-Orian.

EUSKAL JAIA '18
AZAROAK 10,
LASARTE-ORIA

<p>09.30 DIANA</p> <p>10.00 EUSKARLDIAREN LORALDIA etxez etxeko bisitak</p> <p>11.30 KANTU DANTZA JIRA TXIKIA</p> <p>14.30 HERRI BAZKARIA Okendo Plazan. Bazkaloste umoretsua Bea Egizabalekin</p> <p>17.00 "OKERRA JASOTZEA" Udané eta Joseba Ostolaza eta Beñat Telleria</p> <p>Bitartean...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haur eta gaztetxoentzako herri kirolak. • Haurren pilota jokoa. • Gazteentzako herri-olinpiadak. 	<p>18.00 ERROMERIA Ttirriki Ttarrakaren eskutik, Luken Arkarazo eta Jokin Irastorza musikariek batera</p> <p>19.30 TXARANGA, BERTSO ETA PINTXO POTEA Oaintxe in deu eta Earra bertso eskolarekin</p> <p>GAUEAN MUSIKA kale eta tabernetan</p> <p>* Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Loidibarren frontoian egingo dira.</p>
--	---



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en MUSUA disko-liburua eta FAMILIA MILAKOLORE diskoa zozketatuko ditugu.

Eman izena azaroaren 26a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.



Bazkideztza informazioa



@TtakunKE



PLAZAN BAZAN



Zer arraio gertatu ote zaien muntzoiari? Ihesi daz darak, korrika eta lasterka, orain alde batera, orain bestera... Baina zerk baldartu ote ditu?

1 Zer ote diokie atzetik jarraila, zure uestez? Marraztuko zenuke? Oso handia ez bada (eularen antzekoa adibidez), egin ezazu bertan, zurigunean. Osoo handia baldin bada, berriaz, har ezazu bere neurriko tokia (orri handi bat, etxeko horma, kaleko paret...) eta egin ezazu.

2 Marraztu aurretik edo ondoren, aurki itzazu bi irudion artean dauden 9 aldeak.



DOMINOAN

Marraztu fitxetan falta diren irudiak, domino lerroa zuzena izan dadin.

- Garezurra
- Mamua
- Kuia
- Hilarria
- Enborra
- Saguzarra

Labirintoa

Maripurtzil seko ikararuta dago etxeko ganbaran, ez baitu irteera aurkitzen. Lagun iezaiozu lehenbailehen! Mamurik nahiz zomorrerik ukitu gabe egin behar du bidea. Laukitik laukira egin behar du aurrera, eskuargiak seinalatzen duen tokitik hasita eta gora, behera, ezkerredera edo eskuinera, baina inoiz ez diagonalean.

Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak **KUIA** hitza osatzen duten hizkiekin (K, U, I eta A). Gogoan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Soluzioak: www.plazanbazan.eu

Egilea: Garbiñe Ubeda

5 URTE
EUSKARARI
PUZKA
URR.25-AZA.14

SUSTATU EUSKARA NAFARROA HEGOALDEAN
ESKATU SASKIA(K) 50€REN TRUKE ETA
JASOTAKO DIRUAREN %25 BERTAKO
EUSKALGINTZARA BIDERATUKO DA

INFORMAZIOA:
ERRIGORA.EUS

egoaldeko uzta
arari puzka

ERRIGORA aek

Noiz? ASTEARTEETAN, 17:30etik 19:00etara
Izen-ematea: Azaroaren 15era arte. Plaza mugatuak.
Prezioa: Ttakuneko bazkideak 14 €, besteak 17 €.



LH3- LH4-LH5
eta LH6
ikasleentzat



Gazte
Txalaparta
ikastaroa



aisia@ttakun.eus | 943 37 14 48 eta 695 78 53 92

Azaroaren 20tik abenduaren 18ra bitarte

KONTZERTUA "GALERAK DISKAREN AURRERAPENA"
azaroak 10, **LARUNBATA**, 22:00 Sutegi **SARRERAK***

BISITA GIDATUA "HARRIA HITZ"
azaroak 11, **IGANDEA**, 10:00 Frontoitik **DOAN**

PELIKULA "BLACK IS BELTZA" FERMIN MUGURUZAREN
aurkezpena, azaroak 11, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAK***

SOLASALDIA "Antton eta Julen Telleria eta Aitziber Garmendia"
azaroak 14, **ASTEAZKENA**, 19:30 Sutegi **DOAN**

ANTZERKIA "Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi"
azaroak 16, **OSTIRALA**, 19:30 Sutegi **SARRERAK***

KANTU-BERTSO-BAZKARI-JIRA "Agin Laburu eta Aitor Sarriegi
bertsolariekin", azaroak 17, **LARUNBATA**, 12:00 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA***

PELIKULA "OREINA"
azaroak 17, **LARUNBATA**, 19:00 Sutegi **SARRERAK***

KONTZERTUA "EME TALDEA"
azaroak 18, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAK***



NOAUA/KO KULTURALDIA 2018

**USURBIL
AZAROA**



*SARRERAK: Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauako egoitzan. Noauako bazkideek prezio berezian Noauako egoitzan aldez aurretik. *BAZKARI-TXARTELA: Patri jatetxean salgai soilik.

Hasi etxetik eta kalera, aho nahiz belarrietan euskara

Dakitenak gero eta gehiago badira ere, erabiltzen dutenak hainbeste ez direlako sortu dira 'Baietz Hernanik!' edo Euskaraldia egitasmoak; askok familian hartu dute erronka

Eustaten datuen arabera, dagoeneko 2006an ikusten zen familietan euskararen erabilera ez zuela egiten gora, euskara zekitenek adina. EAEko datuak kontuan hartuta, etxean euskara edo nagusiki euskara erabiltzen dutenak %13-14 bueltan dabilta, eta datua ez da apenas aldatu azken 25 urteotan. Herrialdeka badira desberdintasunak, noski. Gipuzkoan, esaterako, %25-26 bueltan dabilta, baina hemen ere joera ez da goranzkoa, eta kopuruari ozta-ozta eutsi besterik ez zaio egiten.

Kaleko erabilera salto egiten badugu, joerak ez dira bestelakoak. Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako azken neurketan emandako datuen arabera, Euskal Herrian %11-12 dira kalean euskaraz ari direnak (10 urtean ez da aldatu); Gipuzkoan, %31, eta gora ez egiteaz gain, beheranzko joera txiki bat ere sumatu da.

Ikerketek erakutsi dute etxeak eragin handia duela hizkuntza bat ala beste erabiltzeko joera finkatzean; euskara erabiltzen duenak erabiliko du etxetik kanpo ere. Beraz, familia transmisioaz ari garelarik, seme-alabei hizkuntzaren ezagutza transmititzeaz gain, etxeko hizkuntza euskara izatea ere oso garrantzitsua da. Horretaz jabetuta, Buruntzaldeko udalerriek sustatuta, adibidez, 2008an egin zen ikerketa xume bat, aztertzeke bikotekideen hizkuntza ohiturak aldagarriak ote diren, eta hala bada,

horretarako gakoak zeintzuk diren. 16 bikote aztertu ziren, eta ondorioetako batzuk dira: posible da, erabaki eta zirt-zart egin behar da, eta bietako batek sendo eutsi behar dio.

Orduko hainbat ondorio nabarmendu dira dagoeneko, Hernanin Euskara Ari Du elkarteak martxan jarritako *Baietz Hernanik!* erronkan parte hartu dutenengan, eta litekeena da Euskaraldian parte hartuko dutenek ere horrelakoak bizitzea.

Hain zuzen, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz gehiago egiteko erronkak hartzeko sortu da *Baietz Hernanik!* egitasmoa 2018ko urte osorako, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra, berriz, Euskaraldia jarriko da martxan Buruntzaldeko beste herrietan eta Euskal Herri osoan. Dagoeneko eman daiteke izena: www.euskaraldia.eus.

Baietz Hernanik! egitasmoari dagokionez, irailaren amaierara arte 802 erronkalarik egin dute bat. Parte-hartzaileen %52 dira 30-44 urte artekoak, eta orokorrean, emakumeak dira gehiago: %62. Erronka motari dagokionez, %30 eremu guztietan ari dira euskaraz; %15, lankideekin; %10 bikotekidearekin; %9 kuadrillan; eta %8 familian. Azken hauen esperientzia ezagututa, zailtasunak baino gehiago, lorpenak azpimarratzen dituzte; "uste baino errazagoa" egiten ari zaie euskarari eustea. Horrela, *Baietz Hernanik!* egitasmoan edota Euskaraldian parte hartzera animatzen dituzte gainerakoak.

"Aita whatsapp erabiltzen hasi da, eta euskaraz; aurrerapena da hori"

AINARA AZPIAZU ADURIZ 'AXPI'

Urtebeteko erronkan ari da Axi, aitarekin euskaraz eginez. Horri esker euskarak etxean presentzia handiagoa hartu du. Euskaraldian amarekin ere parte hartuko du

"Itxaropen gutxiago" omen zeukan Ainara Azpiazu Aduriz 'Axpik', Hernaniko Euskara Ari Du elkarteak bultzatutako *Baietz Hernanik!* erronkan izena ematerakoan. Aitarekin euskaraz gehiago egiteko ahaleginari eutsi dio, eta emaitzak ikusita, aurrera jarraitzeko asmotan dabil. Hemendik gutxira hasiko den Euskaraldian izena ematekotan da; oraingoan, baita amarekin ere.

"Denok atera dugu zerbait"

Euskalduna du aita, eta erdalduna ama; Parisen hazitakoa. Aiton-amonak bizi zirenean euskaraz egiten zutela dio, baina "falta direnetik joera handiagoa" izan dutela erdaraz egiteko. "Ni ere etxetik kanpo bizi naiz orain, eta elkartzaren gairen, erdaraz gehiago egiten dugu".

Horregatik eman zuen izena; bereziki, aitarekin euskaraz egiteko ohitura berreskuratzeko. Ez zuen amarekin beste erronka bati eustea pentsatu, zailagoa zelakoan. "Denok egiten dugu zerbait, amak ere, gu entzunda, zer edo zer atera baitezake". Eta uste baino gehiago atera dute denek. "Pixkanaka ari gara. Orain gutxi, aita whatsapp erabiltzen hasi da, eta euskaraz. Aurrerapena da hori. Alfabetatu gabeta da, eta agian, *Kronika* irakurtzen duelako edo, animatu da, eta nahiko txukun!". Horrez gain, amarekin ere sorpresa hartu duela dio. "Erronka hori hartu ez banuen ere, zeharkako erronka izan da amak ere euskaraz gero eta gehiago entzun



Euskaraldian ere parte hartzeko prest dago Axi, aitarekin erronkari eutsita. KRONIKA

eta ulertzea, eta konturatu naiz ematen duena baino gehiago dakiela. Behartuz gero pixka bat, konturatzen zara".

Amorrua eta etsipena ere bai Zailtasunak ere izaten dira, noski. "Ama euskaltegian ere ibili zen, baina mantsuago ari da, oso urduri jartzen baita, nahiz eta tokatu zaion euskaraz egitea familiarekin". Hori ikusita, zailagoa egiten da gogor egitea. "Batzuetan amorrazioa eta etsipena sentitzen ditut, ez dakidalako zein estrategia sortu, beti neureari eustea baino. Baina agian nire begietatik begiratuta ikusten dut horrela. Izan ere, etxetik kanpoko batek egiten dionean euskaraz, jarraitu egiten dio, eta maila hobea erakusten du".

Aitarekin, berriz, amorrazioa galdutakoak ematen dio. "Amorrazio handia ematen dit aita bere euskara erabiltzen

"EZUSTEKOA HARTU DUT, BAITA NIRE BURUAREKIN ERE"

ez duela ikustek. Oso hemengoa du. Konturatu naiz hemen bustiagoga egiten dugula, eta oso polita iruditzen zait".

Guztia balantzan jarrita, pozik dago lortutakoarekin, eta jendea animatu nahi du abendura arte geratzen den boron *Baietz Hernanik!* erronkan parte hartzera eta Euskaraldiarekin ere bat egitera. "Itxaropen gutxiago neukan. Baina gogor eginda, emaitzak ikusi ditut. Baita amarekin ere! Eta ez nuen pentsatu ere egin. Ezustekoa hartu dut. Baita nire buruarekin ere. Arreta jarrita, lagundu dit nire akatsak ikusten ere; adibidez, erdarakadak uste baino gehiago erabiltzen ditudala".

Urtebeteko erronka hartu du, eta horrek, "benetan ohitura aldatu eta barneratuta geratzen lagundu" duela dio. "Uste dut erronkak egiten jarraituko dugula. Euskaraldiak ere izango du eragina. Orain, aitarekin Ahobizi eta amarekin Belarriprest aritu beharko dugu!"



"Euskarari eusteko erronka izan da saria, falta genuen bultzada"

LUZI CASCO ETA GERARDO BILBAO

Etxeko hizkuntza ohitura aldatu dute Luzi Cascok eta Gerardo Bilbaok. Erdaraz egitetik, euskaraz egitera pasa dira; "egun batzuetako kontua izan da!"

Euskaltegian ezagutu zuten elkar Luzi Cascok eta Gerardo Bilbaok. Ama hizkuntza gaztelania dute, eta 18 urterekin hasi ziren euskara ikasten. "Biteriko eskolan abestiren bat-edo ikasi genuen, baina ezer gutxi gehiago", dio Gerardok. Luzik irakasle izateko eman zuen izena euskaltegian. "Lan egiteko derrigor ikasi behar nuen, eta EGA behar nuen".

Bien arteko harremana, beraz, euskaraz hasi zuten. "Baina familiak erdaldunak dira, eta batzuk bestearena ezagutzean, erdarara itzuli ginen".

Erronka, oparia

Horrela, lagun batek *Baietz Hernanik!* egitasmoan parte hartzeko animatzeko deitu zienean, pozik eman zuten izena. "Joxe Artolak deitu zigunean

argi ikusi nuen zein zen erronka; Gerardorekin euskaraz egitea, eta ahizpa txikiarekin ere bai. Hark eskolan ikasi zuen, eta bere seme-alabekin ere euskaraz egiten dut", dio Luzik.

Gerardo ere ados agertu zen. "Beti genuen asmoa, baina pausoa ematea falta genuen. Euskaratik atzerapausoa eman genuen, eta hau izan da gu ohartarazteko modu bat".

Eskerrak ematen bukatu dute azkenean. "Euskarari eusteko erronka izan da saria, falta genuen bultzada, alferkeriari edo utzikeriari aurre egiteko".

Aldaketa, egun gutxitan

Hasieran *erronka* hitzak berak izutu zituen zertxobait. "Bete beharrekoa da, eta norberak egin behar du bultzada! Hasieran pentsatu genuen zaila izango

zela, baina etxetik atera ginen batean, biok ixilik, txipa aldatu eta euskaraz egiteari ekin genion. Egun batzuetako kontua izan zen. Hiruzpalau egunetan txipa aldatua genuen", azaldu du Luzik.

Zailtasunei erraz egin diete aurre, gainera, Gerardoren arabera. "Momenturen batean, agian, ateratzen da esaldiren bat erdaraz, baina konturatzen gara. Egun batzuetan hain erraz lortuta, atzera begiratu eta erdaraz egin izana arraroa egiten da!".

Horrela, pozik daude biak egindako aldaketarekin, eta etxean hasitakoa, familiako beste kideengana ere zabaltzekotan dira. "Oso pozik gaude. Lehen oporretara joan eta gaztelaniaz entzuten gintuztenean espainolak ote ginen galdetzen ziguten, eta guk ezetz, euskaldunak ginela, baina



Luzi Casadok eta Gerardo Bilbaok bikote harremana euskaraz bizitzea aukeratu dute. KRONIKA

erdaraz ari ginen eta lotsatu egiten ginen! Orain, berriz, amari ere euskaraz egiten hasi naiz ia konturatu gabe, ulertzen ez badu ere!", dio Luzik.

Horrek erronka berriak hartzera animatu ditu, eta Euskaraldian ere izena emango dute. "Ikusi dugu egitasmo txikiarekin, pixkanaka, zenbat lortzen den. Aurreneko hitza

euskaraz egingo dugu beti, ez baitakizu aurrean dagoenak badakien edo ez", dio Luzik.

Gerardok, berriz, "euskaraz gehiago irakurtzea" dauka orain helburu, "erronka txikiak hartzea", alegia. "Oso esperientzia ona izan da. Saria. Lana eman digu euskarak, baina poza eta maitasuna ere bai!". Ados dago Luzi. "Behin hasita, ez dago atzera bueltarik!".

"Gutxien espero duzunak hartu dezake jarrera proaktiboena"

URKO APAOLAZA AVILA

Urte hasieran animatu zen Urko Apaolaza euskarari eusteko erronka hartzera; familian elkartzan direnean erdarara jotzeko joerari buelta ematen ari da

Familian ari dira euskaraz egiteko erronkari eusten, Urko Apaolazaren kasuan. "Badaude euskara ulertzen ez dutenak edo ulertzeko zailtasunak dauzkatenak, eta horregatik, erdarara jotzeko joera izaten dugu, baita euskaraz dakigunon artean ere. Horri nolabait buelta ematea da hartu dudana erronka".

Euskara Ari Du kanpainarekin hasi zenetik da erronkalari, eta horrek eragin dio zailtasunen bat. Baina ez du etsi. "Gurea ez da eguneroko erronka, eta horregatik, zailagoa da urratsak ematen ari zarela ikustea; horrek motibazioan eragina dauka, baina saiatu egin behar!".

Taldean arituta, pentsa daiteke aparteko ahalegina egiten ari dela Apaolaza, baina ezusteko

atseginak ere izan ditu. "Zailagoa izan daiteke batzuen eta besteen implikazioa ezberdina delako, baina aberasgarriagoa ere bada, gutxien espero duzunak hartu baitezake jarrera proaktiboena".

Eta noski, estrategiak ere ez dira berdinak. "Euskaraz ez dakitenekin saiatzen naiz estrategia desberdinak erabiltzen. Euskaraz dakitenekin, aldiz, euskarari eustea nahikoa izaten da normalean, eta bestela, keinu

"GERO, BIHOTZAK EZ EZIK, GORPUTZAK ERE ESKATUKO DIGU GURE ARTEAN EUSKARAZ EGITEA"

txiki bat edo hitz bat esatearekin ohartzan dira, eta euskarara pasatzen dira berriz".

Aliatu berezirik ere ez du falta, hala ere. "Bikotekidearekin eta amarekin hitz egin dut gehien gai honi buruz, eta haien laguntza daukat. Ama eta biok, gainera, duela bi urtetik ari gara euskarari eutsi nahian. Txikiak ginenean ikasi zuen euskara gurekin aritzeko, eta ahalegin hura itzultzeko eta eskertzeko modu bat ere bada".

Akuilu oso ona

Ia urtebeteko esperientziaren ondoren, lortutakoari luzaroan eusteko itxaropena dauka Apaolazak. "Giltza ohitura aldatzen duzun bezalaxe. Gero,



Etxeko guztiekin, familian ari dira euskarati eusten, Apaolazaren kasuan. KRONIKA

bihotzak ez ezik, gorputzak ere eskatuko digu gure artean euskaraz egitea".

Horrexegatik animatzen du mundu guztia modu batean edo bestean euskarari eusteko

ahalegina egitera eta eustera. "Akuilu oso ona da behingoz euskaraz aritzeko, konplexurik gabe, inori baimenik edo barkamenik eskatu behar izan gabe".

Zilarra irabazi dute Navarro ahizpek Oliten

Saskibaloiko Hego Euskal Herriko txapelketa jokatu dute kadeteek Gipuzkoako selekzioarekin; finala galdu dute Bizkaiaren aurka. Jokalariez gain, beste hiru herritar ere daude taldean: Ander Otaegi hautatzailea, Xabi Altuna eta Endika Marrahi laguntzaileak

Adrian Garcia

Bi urtez federazioan laguntzaile moduan aritu ostean, aurten lehen aldiz hartu du Ander Otaegik (Lasarte-Oria, 1994) Gipuzkoako selekzioaren gidaritza. Ostadarreko entrenatzaileak kadete neskek gidatu ditu Hego Euskal Herriko txapelketan, Oliten, asteburuan jokaturako Lauko Finalean. Arabari irabazi, baina finalean Bizkaiaren aurka galdu dute (59-50). Aulkian ez ezik, kantxan ere izan dira herritarrak. Judith eta Garazi Navarro ahizpak garrantzitsuak dira bostekoan. "Judith da taldeko onenetakoa. Ez du bereziki txapelketa ona jokatu, baina erabakigarria izan da halere", azaldu du Otaegik. Donostiako Easo taldean jokatzeko dute bi ahizpek.

Gipuzkoako taldeak Euskal Ligako lehen postuetan aritzen dira, eta horrexek egiten zuen faborito Otaegiren taldea Arabaren aurka. Halere, Ostadarreko seniorren entrenatzailea ez zen fio. Eta



Lasarte-Oriako boskotea. Otaegi, erdian. TXINTXARRI

ia ezustekoa eman zuten arabarrek. "Oso ondo prestatu zuten partida, eta ia galduta geneukan. Bukaeran lortu genuen ozta-ozta berdintzea, eta luzapena jokatzeko". Hain zuzen, Judith izan zen berdinketarako puntuak sartu zituen jokalaria. Gipuzkoarrak

luzapenean hobeak izan ziren, eta 68-61 irabazi zituzten finalerdiak.

Igandean hobeto jokatu zuten, baina ez zen nahikoa izan Bizkaiari irabazteko. Lau kategoriatan, kadete eta infantil neska-mutiletan, jantzi dute txapela bizkaitarrek. Eta

denetan izan da finalista Gipuzkoako selekzioa. "Hobeak izan dira. Hirugarren laurdenera arte hor eutsi genien, baina azkenean markagailuan urrundu ziren".

Edonola ere, ez zuten itxaropena guztiz galdu. Hiruko saskiratze bat sartu zuen Judithek, eta bi minuturen faltan lau puntura jarri ziren. "Baina ezin izan genuen irabazi".

45 jokalariko zerrenda hasieran

Ez du lan erraza izan Otaegik. Iazko kadeteen taldea oso ona zen, eta zaila zuen entrenatzaile gazteak hura ahantzaraztea. Halere, "gogoz" bete du eginkizuna. Finalera iritsi, eta azken unera arte lehiatu da taldea Bizkaiko selekzio indartsuaren aurka.

Ez da bakarrik egon zeregin horretan. Xabi Altuna eta Endika Marrahi izan ditu laguntzaile. Iaz hasi ziren hiru entrenatzaile lasarteoriatarrek lanean. "45eko zerrenda batekin hasi ginen. Lau entrenamendu egin genituen, zein maila zuten ikusteko. Aurten hemezortziko talde batekin hasi gara lanean". Jokalarien ligako partidak ikusi eta estatistikak aztertu dituzte erabakiak hartzeko.

Zazpi astez lan egin dute, entrenatzeko eta txapelketa prestatzeko. Hamabi jokalariko zerrenda hautatu behar du azkenean Otaegik, eta azken bazterketak egiteko baliatzen ditu saio horiek.

Otaegik onartu du iazko taldea "hobeak" izan zitekeela, baina, halere, "maila oso ona" dute Gipuzkoako kadeteek. "Oso ona da belaunaldi hau. Ikaragarri maila altua dute".

Ostadar taldeko entrenatzailea

Gipuzkoako lehenengo mailako seniorrak entrenatzen ditu Otaegik. Maila ona du taldeak; iaz Lauko Finalera sailkatu ziren. Baina desberdina da selekzioaren ardura hartzen duenean: "Ume batzuk dira, 15 urte dituzte, baina aurreratuagoak daude, bai jokoa ulertzerako orduan, baita teknikoki ere. Fisikoki oraindik ez daude osatuta, baina oso onak dira. Plazer bat da haiek entrenatzea".

Banaka jokalaria onak izanagatik, taldelanean ohitu beharra dute, klub desberdinetakoak baitira jokalaria. "Hori da zailena. Ez daude ohituak batera jokatzera. Defentsan ez dute hitz egiten, eta bost entrenamendu ez dira nahikoak".

Gipuzkoako selekzioarekin kontzentrazioa amaituta, orain Euskadiko kadeteen deialdia egin du. Bertan dago Judith. Lehenengo entrenamendua dute igandean.

EUSKADIKO SELEKZIOAREN DEIALDIAN SARTU DA JUDITH NAVARRO, IGANDEKO SAIORAKO

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Eibar SAD

Igandea. 11:30. Michelinen.

ERREGIONALEN 1. MAILA

Ostadar SKT - Vasconia CD

Larunbata. 16:15. Michelinen.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Elgoibar CD - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Mintxeta, Elgoibarren.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT - Euskalduna SD

Igandea. 13:15. Michelinen.

KADETEEN 1. MAILA

Mundarro FKE - Ostadar SKT A

Igandea. 09:30. Zarkumendegi, Astigarraigan.

Ostadar SKT B - Tolosa CF

Larunbata. 14:45. Michelinen.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA

Lazkao KE - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Harizti Handi, Lazkao.

INFANTIL TXIKIAK

Hernani - Ostadar SKT

Larunbata. 12:45. Zubipe, Hernanin.

INFANTILEN 1. MAILA

Danena KE - Ostadar SKT B

Larunbata. 15:30. Elbarrena zelainan, Zizurkilien.

BIGARREN MAILA

Athletic B - Añorga KKE

Larunbata. 16:30. Lezama, Bilbon.

ARETO-FUTBOLA

NAZIONALA 3. MAILA

Gora CD - Antiguoko KE

Larunbata. 19:30. Abusu kirol., Bilbon.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Garoa Taberna - Lauburu KE Ibarra
Igandea. 09:30. Kiroldegian.

GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA

Bar Lasarte - Herrikide

Larunbata. 11:20. Kiroldegian.

GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA

Erain - Balerdi Harategia

Larunbata. 10:30. Tecnun, Donostian.

SASKIBALOIA

SENIOR HIRUGARREN MAILA

Ostadar SKT - CD Internacional

Larunbata. 18:00. Kiroldegian.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Ostadar SKT - Eskoriatza KE

Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Bera Bera Albistur - Ostadar SKT A
Igandea. 12:00. Benta Berri, Donostian.

KADETE ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT A - Ordizia KE

Larunbata. 09:30. Kiroldegian.

PILOTA

INFANTILAK

Intza - Gazteleku 5

Larunbata. 16:00. Michelinen.

ALEBINAK

Intza 1 - Añorga 1

Larunbata. 16:00. Michelinen.

Intza 2 - Gure Txeru 1

Larunbata. 16:00. Michelinen.

Añorga 2 - Intza 3

Igandea. 10:30. Añorga.

LASTERKETA

BEHOBIA DONOSTIA

Lasarte-Oriako 169 korrikalarik parte hartuko dute igandean egingo den Behobia-Donostia lasterketan.

Gutzira 20 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Igandea. 09:45etik aurrera. Behobian.

ERRUGBIA

OHOREZKO MAILA

Alcobendas - Hernani CRE

Igandea. 12:00. Las Terrazas, Alcobendasen.

OHOREZKO B MAILA

Babyauto Zarautz - Valladolid RAC B

Larunbata. 15:00. Asti, Zarautzen.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKT-ko igerilari infantilek, juniorrek eta absolutuek Neguko Liga Probintzialeko bigarren jardunaldia jokatuko dute. Ordizian.

Larunbata. 16:00. Las Majori, Ordizian.

170 herritar izango dira Behobiako irteeran

Igandean jokatuko dute Behobia-Donostia herri lasterketa jendetsua; askorentzat urteko helburua da. 40 emakumek eta 129 gizonak izena eman dute. Guztira 30.000 korrikalari baino gehiago izango dira, hiribururainoko hogeita kilometroak betetzeko

Txintxarri

Urteroko hitzordua da korrikalari askorentzat, entrenamendu guztien emaitza erakusteko lasterketa. Igandean jokatuko dute herriko 169 korrikalarik Behobia-Donostia. 40 emakume eta 129 gizonak parte hartuko dute. Hain zuzen, Fortuna antolatzaileak jarritako epe ertainera begirako helburua honakoa da: 2025. urtean emakumeek lasterkarien erdia osatzea.

Aulki gurpildunak 09:45ean hasiko dira, eta rollerrak bost minutu geroago. Korrikalariak 10:15etik aurrera aterako dira taldeka; azkenekoa 11:39ean aterako da.



David Martin, iazko Behobia-Donostian. TXINTXARRI

Indarrean hasi dute igeriketa denboraldia Buruntzaldean

Txapelketak hasi dituzte Buruntzaldea IKTko igerilariak, Andoainen eta Ordizian marka pertsonalak onduta

Txintxarri

Ongi estreinatu dira Buruntzaldea IKTko igerilariak 2018-2019 denboraldian. Alebinek lehen jardunaldia jokatu zuten urriaren 27an, Ordizian, eta bi igerilari G ipuzkoako Udarako Txapelketarako sailkapena lortu zuten. Edonola ere, emaitzez harago, ikasteko baliatu dituzte 400 metro estilo librean eta 100 metro bular estiloan egindako probak. "Laburrak diren arren, adin hauetako igerilariarentzat erronka handia da, eta esfortzua neurtzen ikasteko eta ausardia ateratzeko baliagarriak dira", azaldu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Bestalde, Andoainen Neguko Ligako lehen jardunaldia lehiatu zuten infantil, junior eta absolutuek. Hamasei igerilari aritu ziren guztira, eta 25 marka pertsonal lortu zituzten, taldeko



Buruntzaldea IKT, Andoainen. BURUNTZALDEA IKT

lau errekor berri tartean. Besteak beste, Gipuzkoako Txapelketarako bost sailkapen lortu zituzten. Junior eta seniorreko igerilariak erritmo falta nabaritu arren, ongi moldatu ziren Mikel Esnal, Ainhoa Martin, Leire Martin, Yaiza Martinez eta Nathalia E. Torres.

Eskuratu 1.000€ eta gastatu 3 ordutan

Kontsumitu ezazu
Lasarte-Orian
azaroaren 12tik 23ra,
eta parte har ezazu
erosketa-bonoen
zozketan



LASARTE-ORIAN BIZI,
LASARTE-ORIAN EROSI



1.000€ko sari bakarra
1.000€
Eta zuri tokatzen
bazaizu?

Zuzeneko zozketa azaroaren 23an 20:30ean, Jaizkibel Plazan

Garaipena iritsi bitartean, hobetzen jarraitzen dute

Garoa Taberna Eguzki taldeak gero eta gertuago ditu denboraldiko aurreneko hiru puntuak. Maila txukuna erakutsi du Trintxerperen aurka, baina 1-2 galdu du. Klubeko gainontzeko talde bakar batek ere ez du partidarik irabazterik izan jardunaldi honetan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Iraganeko kontua dira gol asko jasotzen zituzten partidak. Joan den denboraldian sortu zuen Eguzkik emakumezko seniorren taldea: urtebete pasa da, eta jokalariek asko ikasi dute. Taldea askoz sendoagoa da. Oraindik ez dute neurketarik irabazi aurretik, baina ez zaie asko falta. Garaipena iritsi bitartean, hobetzen jarraitzen dute.

Ligako talde indartsuenetako batekin neurtu zituzten indarrak lasarteoriatarrek: Trintxerpe etorri zen Maialen Chourraut kiroldegiko kantzara. 2017ko azaroan jokatu zuten bi taldeek aurreneko; 3-9 irabazi zuten txuri-urdinek. Pasa den asteko ostiralean, berriz, 1-2.

Paretsua izan zen partida. Jokoaren pisua Trintxerpek eraman zuen; atzean itxaroten zuen Garoa Tabernak, juntu, baloia lapurtu bezain laster kontraerasora irteteko. Halere, kanpoko taldeak sartu zuen lehen gola. Atsedendian, 0-1.

Bigarren zatian norgehiagoka berdintzeko asmoz atera zen Eguzki. Baita lortu ere: Lara Torinos kapitainak sartu zuen banakoa. Kalitate handiko taldea da Trintxerpe, ordea, eta punturik gabe utzi zuen Eguzki, bukatzeko gutxi falta zela 1-2koa sartuta.



Lara Torinos kapitaina, kontraeraso bat hasten. TXINTXARRI

Nahi baino erritmo geldoagoan ari da puntuak pilatzen Aldaz Hertz Klinika. Bost partida jokatu ditu, eta lau berdindu. Azkena, ostegunean, etxean, Gaintxuren aurka: 5-5. Ez du neurketarik irabazi oraindik, eta bakarra galdu du. Esku-hutsik geratzea baino hobea da astebururo puntu bat poltsikoratzea, zalantzarik gabe, baina jokalariek hirunaka batzen hasi nahi dute ahalik eta lasterren. Biharko derbian hasi nahi dute dinamika aldatzen: Andoainera joango dira, ondoko herrira, Euskaldunaren aurka

jokatzera. Mikel Escribano eta Javi Vecillaren taldearen inflexio puntuak izan daiteke.

Gipuzkoako 2. mailan ari den ISU Leihoak Eguzki taldeak atsedean hartu zuen pasa den asteburuan. Jubenilek eta kadeteek, ordea, ez. Eskoriatzaren aurka jokatu zuen Bar Lasarte Eguzkik. Partida ona jokatu arren, 4-2 galdu zuen. Balerdi Harategia Eguzkik etxean jokatu zuen, Lauburu Ibarraren aurka. Ligako liderrari hortzak erakutsi arren, 1-2 galdu zuten herritarrek. Lautik lau irabazi ditu Ibarrak.

Iraia Iparragirre futbolaria izango da urteko kirolaria

Mutiletan hiru proposamen jaso dituzte: Aitor Manso pilotua, Ander Bardaji atezaina eta Raul Gomez atleta

Txintxarri

Emakumeen kategorian soilik hautagaitza bat jaso dute: Iraia Iparragirre. Horrenbestez, Realeko atzelaria izango da aurtengo kirol galako omenduetako bat. Hain zuzen, bigarren fasean sartu da Lasarte-Oriako 2018ko kirolarien hautaketa. Denera hamar proposamen jaso dituzte. Mutilen kategorian hiru dira hautagaiak: Aitor Manso karting pilotua, Ander Bardaji atezaina eta Raul Gomez Margallo korrikalaria. Kirol ibilbidearen

kategorian, berriz, hauek dira proposamenak: Pili Bodegas triatloilaria, Andoni Illarramendi triatloilaria, Gomez Margallo bera, Amaia Andres atleta, David Martin kros korrikalaria eta Buruntzazpiko txirrindularitza eskola.

Lasarte-Oriako Kirol Batzordeko kideek bozkatuko dute bigarren fase honetan, azaroaren 17ra arte. 3tik 1erako lehentasuna eman beharko dute. Kirolaren galan omenduko dituzte kirolariak, abenduaren 15ean.

Ebatzi dituzte iazko kirol jardueretarako diru laguntzak

Hiru elkartek jasoko dituzte 2017. urteari dagozkion laguntzak: Sasoeta Sasoian, Ostadar eta Buruntzaldeak

Txintxarri

Denera 8.508 euro eman ditu udalak diru laguntzetan, iaz kirol jarduerak antolatu zituzten elkarteak babesteko.

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia antolatzeagatik 2.720 euro inguru jasoko ditu Ostadar SKTk. Kirol elkartearen urteroko hitzordu garrantzitsuenetakoa da. Saskibaloiko 3x3 torneoa antolatzeagatik, berriz, 880 euro emango dizkiote Ostadarreko Saskibalo sailari. Eta saskibaloiko selekzioen

topaketagatik, 1.430 euro. Azkenik, bolo eta toka tiradak San Pedro jaietan egiteagatik, 1.310 euro.

Buruntzaldea IKTk antolaturiko bi jarduera babestu ditu udalak. Batetik, Lasarte-Oria igeriketa saria 592 euroekin lagundu du. Bestetik, Masterrak Itsasora Kanpusa, 98 euroekin.

Sasoeta Sasoian elkarteak 1.310 euro jasoko ditu Jose Martija txapelketagatik. Eta mendiko bizikletaz Leitzara ibilaldia egiteagatik, aldiz, 165 euro.

Bigarren zati bikaina eginda, 0-3 irabazi du Ostadar SKTk

Denboraldi ederra egiten ari da Erregional Preferentea: zortzi jardunaldi jokatu, eta bost partida

Txintxarri

Kategoria mantentzea baino gehiago nahi duela erakusten jarraitzen du Erregional Preferenteak. Denboraldi hasiera bikaina egiten ari da: zortzi jardunaldi jokatu, eta bost partida

irabazi ditu. Azkena, etxetik kanpo, Gure Txokoaren aurka, 0-3. Etxetik kanpo lortzen duten hirugarren garaipena da. 2017-2018 sasoi osoan bitan besterik ez zituzten hiru puntuak atera Michelinetik kanpo. Hamasei

punturekin, sailkapenaren goiko postuetan da taldea. Bolada onean dira Asier Aizpurua eta Ander Rekondoren jokalariek.

Azken sailkatua da Gure Txokoa, baina ez da batere erraza Matzadan irabaztea. Pazientzia handiz jokatu zuen Ostadarrek: bazekien iritsiko zela gola sartu eta etxeok urduritzeko aukera. Bigarren zatian hautsi zuten neurketa urdin-beltzek, Ivan Ruizen golarekin. Ganix Arrondok eta Haritz Berasategik sartu zituzten beste biak.



Asier Hazas erdilaria, Trintxerperen aurka jokatutako neurketan. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Mario
Zorionak Mario; dagoeneko 4 urte. Zure gurasoen eta familia guztiaren partetik muxu asko. Asko maite zaitugu.



Amaior
Zorionak guapisima, 10 muxu erraldoi zu gabe bizi ezin dutenen etxeko hiruren partetik. Ez dakizu zenbat maite zaitugun! Ekain, aitabxo eta amatxo.



Urko
Zorionak Urko, muxu pila bat familaren partez. Maite zaitugu.



Adrian
Zorionak korrikalari!! Zure eguna ederki ospatu izana espero dugu. Ttakuneko langileen partetik.

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu horretarako

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUTUNAK

Jon Antxordoki jaunari gutun irekia

XIRIMIRI ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

Aurtengo Euskal Jaiaren harira, gure elkartearen ospatuko den afaria dela eta, jakin dugunez beste garai bateko jokamolde batekin, zerorrek udaleko Euskara Saileko arduradun modura, afari hori eta gure elkartea bera Euskal jaiaren egitarauaren iragarki kartelean agertzea galarazi duzu.

Lehenik eta behin, gure elkartearen eta bertako bazkide garen 120 Lasarte-Oriatarren aurkako zure jarrera baztertzaila salatu beharrean gaude. Horrelako inposaketak, gure herriak behar duen elkarbizitzan sakondu beharrean, garai bateko jarrera sektarioak sustatzen ditu.

Ziur gaude hartu duzun bidea aurreiritzietan eta Xirimiri Elkartearen denaren ezjakintasunean oinarrituta dela. Xirimiri Elkarteak bere 29 urtetako ibilbidean Lasarte-Oriako kultur bizitza oparoan eragile bat gehiago izan da, beti herriko gainontzeko gizarte eta kultur eragileekin elkarlanean eta laguntzeko prest. Bazterketen gainetik, beti elkarlanean eta elkarbizitza sustatuz.

Horregatik, Antxordoki jauna Xirimiri Elkartearen zuzendaritza batzordearen eta bertako 120 bazkideren izenean zuk inposaturiko bazterketaren zuzenketa bat eskatzen dizugu.

Azkenik Lasarte-Oriatar guztiak animatu nahi ditugu aurtengo Euskal Jaietan parte hartu eta gozatzeri. Gora Euskal jaia!!!

OHARRAK

Biyak Bat elkartea

Biyak Bat elkarteak zenbait ohar jakinarazi nahi ditu. Batetik, bazkideek gabonetako loteria erosteko aukera izango dute azaroaren 5etik aurrera. Horretarako bazkide txartela erakutea ezinbestekoa izango da. Bestetik, azaroaren 8an etxeko lapurreta eta hirugarren adinekoei gertatutako iruzurren inguruko hitzaldi bat egingo dute ertzaintzarekin. 19:00etan izango da, egoitzan bertan.

1963ko kinto afaria

Azaroaren 17an, larunbata, 1963an jaiotekoek urteroko afaria egingo dute Palomo Linares elkartearen, 21:00etan. 20:00tan, Gure Etxean hitzordua izango dute pottoka pare bat hartu ahal izateko. Afaria 35€urota aterako da, Laboral kutxako kontu honetan sartzeko: ES72 30350036110361139230.

JAIOTAKOAK

Mara Amadoz Martiarena. Urriaren 31an.
Chloe Montejo Marcos. Urriaren 13an.

HILDAKOAK

María Josefa Campo Vaquero. Azaroaren 2an.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEA: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 9 GIL
Larunbata, 10 GANDARIAS-URIBE
Igandea, 11 GANDARIAS-URIBE
Astelehena, 12 ACHA-ORBEA
Astearte, 13 URBISTONDO
Asteazkena, 14 GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 15 ORUE

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

	2		3			4		
				2			8	5
	6	9			8	2	3	
9	4	2	6				1	
1		6	2	8	4	5		
			9					4
7				3		1		2
6	9		1		2			
2	1		8		7		4	

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen du. Telefonoa: 648 200 811.

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren. Sarrera erraza du eta handia. Telefonoa: 943 36 54 76.

Etxebizitza alokatzen dut Zapategi kalean. 86 metro koadro dauzka, hiru logela eta bi komun. Telefonoa: 636 58 54 78.

ALOKAIRUAN HARTU

Etxebizitza alokatuko nuke. Txikia balitz ere ongi letorkidake, bakarrik bizitzeko baita. Telefonoa: 677406223.

LANA

ESKAINITZA

DBH 1.go mailako ikasle bati klase partikularrak emateko irakasle baten bila nabil. Telefonoa: 605 770 436

ESKARIA

Arratsaldeetan eta asteburuetan haurrak

edota helduak zainduko nituzke. 675 83 02 06

Pertsona eskaintzen da etxeko lanak, garbiketa lanak, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. 602 119 208.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, asteburuetan eta

jaiegunetan zein ospitalean gaueko zaintzak egiteko prest. 606661048 / 943-404015

SALEROSKETA


SALDU

Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, karnetik gabea. Prezio interesgarria. 608 417

794 edo 670 236 356 telefonoetara deitu.

PIAGGIO ZIP 50 2T motoa salgai, oso modu onean. Segurua eta ITVa pasata. Harremanetarako: 610 953 258.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

TXINTXARRIK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 9

LASARTE-ORIA Kontzertua

Joyleboy bakarlariak retro funk, drum'n'bass eta british estiloko doinuak eskainiko ditu. Leku guztietan kultura ekimeneko ekintza. Pablo Mutiozabal kalea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu zurlanketa elkarteko erakusketak, azaroaren 18ra arte. Asteazken 18:00etatik 20:00etara izango da. Asteburuan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

LARUNBATA 10

LASARTE-ORIA VI. Baserri azoka

Baserrian ekoiztutako produktuen azoka antolatu dute. Haurrentzako jolasak ere izango dira.

Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Euskal Jaia

Euskal jaiak herriko kaleak alaituko ditu:

9:30ean, diana kaleetatik zehar.

10:00etan, *Euskaraldiaren Loraldia*, etxez etxeko bisitak hasiko dira.

11:00etan, Kantu Dantza Jira Txikia, Sagardotegi plazatik hasita.

14:30ean, Herri bazkaria, Okendo plaza. Ondoren, bazkaoste umoretsua Bea Egizabalekin.

17:00etan, Harri-jasotze saioa egingo dute Udane eta Joseba Ostolazak eta Beñat Telleriak. Ostolazak Okerra harria jasoko du.

Bitartean, haur eta gaztekoentzat herri kirolak; haurren pilota jokoa eta gazteentzako herri-olinpiadak.

18:00etan, Erromeria Ttiriki Ttarrakaren eskutik, Luken Arkarazo eta Jokin Irastorza musikariekin batera.

19:00etan, Txaranga, bertso eta pintxo potea Oaintxe in deu txaranga eta Earra Bertso eskolarekin.

21:30ean, Afaria, Xirimirin. Gauean, musika kalean eta tabernetan.

Lasarte-Oriako erdigunea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Memoriaren eguna

Gatazkaren biktimak gogora ekartzeko ekitaldia egingo da Memoriaren egunean.

Askatasunaren parkea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Akordeoi jaialdia



LASARTE-ORIA Euskal Jaia. Lasarte-Oriako erdigunean izango da larunbatean. Goizean goizetik, herriko erdiguneko kaleak alaituko ditu Euskal Jaiak, diana eta Kantu Dantza Jira Txikiarekin. Herri bazkaria, umorea, harri-jasotzaileak, haurrentzako eta gazteentzako ekintzak, erromeria... denetarik izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Loidibarren pilotalekuan egingo dira ekintza nagusiak. Lasarte-Oriako erdigunea, larunbata, egun osoa.

Lasarte-Oriako XV. akordeoi jaialdia antolatu du Zero Sette akordeoi orkestrak. Iñaki Dieguez, Iker Telleria eta Oinkariko dantzariak eta Sabadellgo akordeoi orkestra izango dira oholtzan. Sarrera, 5, 50 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

USURBIL Kontzertua

Galerak diskoaren aurrerapena eskainiko dute. Poesia, antzerkia, dantza eta ilustrazioak biltzen dituen ikuskizuna da. Sarrera, 8 euro. Noa!ko kulturaldiko ekintza.

Sutegi aretoa, 12:00etatik aurrera.

IGANDEA 11

USURBIL Bisita gidatua

Harria hitz bisita gidatua Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian izan zuen rola aztertuko dute. Erreserbak: 688 818 017, info@kultour.pro edo elkarte@noa.eus. Noa!ko kulturaldiko ekintza.

Usurbilgo frontoia, 10:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 14

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

Ipuin kontaketa berezia izango da HH3 eta HH4 mailako haurrei zuzendua. Asmakizunak, eskulanak, poesiak eta abestiak kantuko dituzte ipuina lantzeko. Izena ematea Ttakun kultur elkarte, aisia@

ttakun.eus edo 695 785 392. Villa Mirentxu, 17:45ean.

LASARTE-ORIA Opera

1985ean, La Scala De Milanen grabatutako Aida opera eskainiko da. Luciano Pavarotti da protagonista. Jatorrizko hizkuntza, gaztelarazko azpidatizkiekin Sarrera, aurrez erosita 7,50 euro, egunean 9 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

USURBIL Solasaldia

Antton eta Julen Telleriarekin eta Aitziber Garmendiarekin solasaldia. Noa!ko kulturaldiaren barruko ekintza.

Sutegi aretoa, 19:30ean.

OSTEGUNA 15

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

4 eta 5 urteko haurrek ipuinen munduan barrena bidaiatuko dute Pello Añorgaren eskutik. Haur liburutegia, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Zine zikloa

Itsasoari buruzko zikloaren lehen saioa. *Elkarrekin Together* dokumentalak euskal arkeologoen espedizio batek AEBko ekialdeko irla batera egindako bidaia erakusten du. Albaolako Xabier Alberdi izango da filma aurkezteko. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

El reino
Ostirala: 22:00.
Igandea: 19:30.

El reino de los elfos
Igandea: 17:00.

USURBIL

SUTEGI

Black is beltza
Igandea: 19:00.

URBIL

Bohemian Rhapsody
Ostirala: 16:20, 19:10, 20:35, 22:00, 23:30.
Larunbata: 16:20, 19:10, 20:35, 22:00, 23:30.

Igandea: 16:20, 19:10, 20:35, 22:00
El Cascanueces y los Cuatro Reinos
Ostirala: 15:50, 18:05, 20:20.
Larunbata: 15:50, 18:05, 20:20.
Igandea: 15:50, 18:05, 20:20.

Infiltrado en el KkKlan
Ostirala: 15:45, 19:15, 22:00.
Larunbata: 15:45, 19:15, 22:00.
Igandea: 15:45, 19:15, 22:00.
La noche de Halloween
Ostirala: 18:10, 20:30, 22:45.

Larunbata: 18:10, 20:30, 22:45.
Igandea: 18:10, 20:30, 22:45.
Pesadillas 2: Noche de Halloween
Ostirala: 15:45, 18:50.
Larunbata: 15:45, 18:50.
Igandea: 15:45, 18:50.
Smallfoot
Ostirala: 16:00, 18:30.
Larunbata: 16:00, 18:30.
Igandea: 16:00, 18:30.
Venom
Ostirala: 16:50, 22:35.
Larunbata: 16:50, 22:35.

Igandea: 16:50, 22:35.
Ha nacido una estrella
Ostirala: 21:15, 00:15.
Larunbata: 21:15, 00:15.
Igandea: 21:15.
El árbol de la sangre
Ostirala: 00:45.
Larunbata: 00:45.
Escuela para fracasados
Ostirala: 00:50.
Larunbata: 00:50.
Slender Man
Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.
Ola de crímenes
Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.



LABURPENA

El reino

Zuzendari: Rodrigo Sorogoyen. **Gidoilariak:** Isabel Peña eta Rodrigo Sorogoyen. **Herr.:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Antonio de la Torre, Josep Maria Pou, Nacho Fresneda, Ana Wagener, Mónica López, Bárbara Lennie, Luis Zahera Lorente. **Iraupena:** 122 minutu.

Sistema politikoaren ustelkeria

Rodrigo Sorogoyenek zuzendutako hirugarren filma dugu *El reino*. Thriller politikoa da, eta ustelkeria du oinarri.

Manuel politikaria da. Erkidego bateko idazkariordea da, eta eragin handia du. Nazio mailako politikara salto egiteko aukera handia du. Bere bizitza aldatuko da, ordea. Filtrazio batzuk direla eta, ustelkeria kasu batean inplikatu dute. Bere lagun mina Paco ere tartean da. Hedabideek eskandaluaren dimentsioaren berri ematen dute. Alderdiak Paco babesten du. Manuel, berriz, alderditik kaleratzen dute. Iritzi publikoaren begi puntuan dago, eta ordura arteko lagunek bizkarra ematen diote. Alderdiak

erantzukizun osoa Manuelek har dezala nahi du, baina bera ez dago prest errua beregain hartuko duen bakarria izateko. Emaztearen eta alabaren babesarekin soilik, bizirauten saiatuko da. Manuelek aurka egin beharko die urte luzez doitutako ustelkeria-mekanismoari eta erregeak amiltzen baina erresumei jarraipena ematen dien alderdi-sistema bati.

Filma Torontoko zinemaldian aurkeztu zen, eta Donostiako Zinemaldiko urrezko maskorra irabazi zuen.

Herritarrek ostiraleko zine forumean eta igandeko helduen saioan film honetaz gozatzeko aukera izango dute.

ERAIKUNTZA BERRIA SALMENTAN! ZABALETA BERRIN

Hitzartutako etxebizitzak. Baldintzarik gabe.

Donostiatik
6' tara soilik

DONOSTIALDEKO
PREZIORIK
ONENA



3 LOGELA + GARAJEA
+ TRASTELEKUA

218.500€ tik
+BEZa

250 familia baino gehiagok gozatzen dute
Lasarteko **INGURU NATURAL** paregabe honetan.

INFORMA ZAITEZ

943 36 89 42
www.zabaletaberri.es



Arrazoi tekniko, juridiko edo komertzialengatik informazio hau aldatua izan daiteke.